# TIPI-TAPA BAGOAZ!

## Hacia vidas SOStenibles



www.tipitapabagoaz.info

TIPI-TAPAbagoaz

#VidasSOStenibles #TIPI-TAPAbagoaz

## MANIFIESTO DE LA CAMPAÑA

# TIPI-TAPA BAGOAZ!

## Hacia vidas SOStenibles

Hace décadas que cuestionamos nuestro modo de vida y la necesidad de cambios en nuestro consumo desorbitado que está terminando con los recursos del planeta.

Como especie viva que somos, obtenemos lo que precisamos para vivir de la naturaleza, somos seres radicalmente **ecodependientes**. Así mismo, dependemos de los cuidados que nos dedican otras personas para sobrevivir, somos seres **interdependientes**.

El sistema de producción, reproducción, distribución y consumo actual se ha desarrollado a espaldas de estas dependencias básicas que posibilitan la vida humana.

Para construir sociedades sostenibles, justas y equitativas, consideramos necesario realizar una transición hacia otro modelo radicalmente diferente que sitúe el cuidado de la vida y del planeta en el centro. Esto solo es posible si lo hacemos desde el trabajo conjunto y la articulación de discursos, luchas y movimientos. Colectivos de distintos ámbitos[1] (movimientos sociales, ONGD, redes y sindicatos) hemos consensuando **propuestas y reivindicaciones** en base a cuatro ejes que consideramos estratégicos: economía al servicio de las personas, decrecimiento energético, soberanía alimentaria y el cuidado de las personas como uno de los pilares de la sostenibilidad de la vida.

Estas propuestas y reivindicaciones que presentamos en forma de Manifiesto, van dirigidas a las instituciones públicas, de forma que contribuyan a guiar la necesaria transición política hacia una sociedad justa y equitativa basada en estilos de vidas sostenibles, apostando por la construcción de relaciones y prácticas políticas, económicas, sociales y culturales que sean respetuosas, equitativas y solidarias entre las personas, los pueblos y la naturaleza.

Hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que, de forma individual o colectiva, se adhieran a este manifiesto.

[1] Bizilur, EHNE Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Emaús Gizarte Fundazioa, Setem Hego Haizea, Desazkundea, ESK sindikatua, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, REAS Euskadi, Euskadiko GGKEen koordinakundea, Saretuz, Zentzuz Kontsumitu, Alianza Política Sector de Mujeres, Centro de Mujeres Xochilt Acatl.

## LO QUE QUEREMOS

### EL CUIDADO DE PERSONAS COMO UNO DE LOS PILARES DE LA SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA

1. **Reducir el tiempo dedicado al empleo** y el reparto de los trabajos monetizados entre toda la población en edad de trabajar.
2. **Visibilizar** nuestra condición de seres **ecodependientes e interdependientes.**
3. **Facilitar espacios públicos donde autogestionar** colectiva, democrática y comunitariamente las necesidades de sostener la vida, tales como el cuidado de personas, comedores comunitarios, huertos urbanos, lavanderías, intercambio de objetos y de conocimientos, espacios de ocio y encuentro intergeneracional, etc.
4. **Impulsar el acceso al sistema de cuidados como derecho universal** a garantizar por las instituciones públicas (mediante la profesionalización del sector, ayudas y todas aquellas medidas necesarias).
5. **Garantizar una sanidad y una educación públicas**, de calidad, de acceso universal y gratuito.
6. **Integrar transversalmente en el currículo escolar el enfoque de sostenibilidad de la vida**: cuáles son las necesidades básicas vitales y qué tareas las satisfacen, y cómo hacerlas.
7. **Equiparar los permisos de maternidad y paternidad** intransferibles y pagados al 100%.
8. **Equiparar los derechos de las empleadas de hogar** al Estatuto de los Trabajadores2.
9. **Reducir la brecha salarial** de la sociedad hasta alcanzar niveles de 1 a 3.

### SOBERANÍA ALIMENTARIA

1. **Promover la centralidad de la tierra y el agua como bienes comunes vitales** y la apuesta por una agricultura, ganadería y pesca generadoras de alimentos de calidad y libre de transgénicos, dentro de los planes de ordenación del territorio.
2. **Incluir y emplear mecanismos participativos para pensar el territorio** que necesitamos para vivir: qué usos del suelo necesita la población, buscando un equilibrio entre los patrimonios naturales que debemos conservar y usos sociales para la población.
3. **Resituar el saber campesino local** como garantes de la biodiversidad, la sostenibilidad y como sujetos de transformación.
4. **Fomentar producciones locales autónomas** a través de pequeñas iniciativas que puedan favorecer la permanencia de instalaciones agrarias, ayudando a reducir insumos externos.
5. **Promover la transición hacia modelos agroecológicos** tanto en el sector productivo, ganadería y pesca, como el de la transformación.
6. **Promover normas higiénico-sanitarias acordes a producciones de pequeña escala** y de producción y transformación artesanal.
7. Situar el **consumo como herramienta de poder y de transformación social,** acercando la información y haciendo visible la importancia del consumo local por parte de la población en general.
8. **Desarrollar modelos de licitación y contratación pública para comedores** escolares, sociales y residencias municipales, **que favorezcan a producciones agroecológicas,** sostenibles y generadoras de alimentos de calidad, a través de circuitos de proximidad.

### DECRECIMIENTO ENERGÉTICO AHORRO Y REDISTRIBUCIÓN JUSTA Y DEMOCRÁTICA DE LA ENERGÍA EN PRODUCCIÓN Y CONSUMO

1. **Evitar**, con la legislación adecuada, **que las personalidades políticas ocupen puestos en empresas energéticas.**
2. **Aplicar una moratoria sobre el fracking**; así como, retirar los permisos de prospección aceptados hasta ahora.
3. **Exigir a las empresas transnacionales a reconocer y pagar la indemnización por los daños causados** por la explotación negligente de gas, petróleo y uranio a aquellos países y comunidades a quienes se les ha inferido dicho daño (como México, Guatemala, Ecuador, Bolivia, Perú, Indonesia, Nigeria...)
4. **Impulsar la eficiencia energética y el ahorro de energía** en todos los sectores.
5. **Reconocer la energía como un derecho básico** e implementar leyes para que se consiga el acceso universal a una cantidad mínima que asegure una vida digna a todas las personas.

### ECONOMÍA AL SERVICIO DE LAS PERSONAS, EL BIEN COMÚN Y LA SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA

1. **Considerar la economía como medio al servicio de las personas, el bien común y la sostenibilidad ambiental**, apostando por una economía desinteresada, no basada exclusivamente en el ánimo lucrativo.
2. **Evitar instrumentos como los tratados de libre comercio**, centrados en favorecer los intereses del capital transnacional a costa de la disminución de derechos laborales, protección medioambiental y soberanía de los pueblos, entre otras.
3. **Realizar políticas de reparto de todos los trabajos**, con reducción del tiempo dedicado al empleo remunerado.
4. **Asegurar el derecho a una vida digna.** Una herramienta fundamental para lograr esto es la instauración de la renta básica universal e incondicional o renta básica de las iguales.
5. **Impulsar un modelo justo de distribución de la renta y los patrimonios** a través de un sistema fiscal que permita el reparto de la riqueza.
6. **Transversalizar la perspectiva feminista y el paradigma de la sostenibilidad de la vida en** el ámbito de **la gestión institucional.**
7. **Instar a un proceso colectivo y democrático para la reconversión y relocalización de los grandes sectores contaminantes y antisociales**, centrándose en las posibilidades que ofrece el empleo verde (banca, energía, textil, alimentación, automoción, industria militar...).
8. **Promover la economía social y solidaria** a través de campañas de sensibilización ciudadana y de concienciación de determinados agentes sociales, que permitan difundir sus alternativas y sensibilizar sobre la necesidad de un cambio de paradigma económico. Promoción de consumo responsable, finanzas éticas y solidarias, cooperativas de consumo (energía, alimentación, salud, servicios...).
9. **Realizar mapeos de proyectos y emprendimientos de economía solidaria en el territorio**; así como, sensibilizar y formar a personal técnico y político institucional sobre la economía solidaria y elaboración de guías para el impulso de políticas públicas.

**ADHIÉRETE AQUÍ:** www.tipitapabagoaz.info


Coordinada por: MUGARIK GABE www.mugarikgabe.org

Financiado por: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA / AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO; Bizkaia foru aldundia diputación foral; Gipuzkoako Foru Aldundia Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua / Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

# TIPI-TAPA BAGOAZ!

## Bizimodu jasangarrietarantz



www.tipitapabagoaz.info

TIPI-TAPAbagoaz

#VidasSOStenibles #TIPI-TAPAbagoaz

TIPI-TAPA BAGOAZ!
Bizimodu jasangarrietarantz

## KANPAINAREN MANIFESTUA

Hamarkadak daramatzagu egungo bizimodua zalantzan jartzen eta planetako baliabideak agortzen dituen kontsumo neurrigabean aldaketak egin behar direla aldarrikatzen.

Espezie bizidun izaki, bizitzeko behar duguna naturatik eskuratzen dugu: **ekomenpeko** izakiak gara guztiz. Era berean, bizirik irauteko, beste pertsonek gu zaintzearen mende gaude: **elkarmenpeko** izakiak gara.

Egungo ekoizpen-, erreprodukzio-, banaketa- eta kontsumo-sistema giza bizitza ahalbidetzen duten oinarrizko menpekotasun horiek aintzat hartu gabe garatu da.

Gizarte jasangarriak, justuak eta ekitatiboak eraikitzeko, uste dugu bizitzaren eta planetaren zainketa erdigunean jartzen dituen beste eredu guztiz desberdin batera aldatu behar dugula. Hori lortzeko modu bakarra elkarrekin lan egitea eta diskurtsoak, borrokak eta mugimenduak artikulatzea da. Eremu desberdinetako hainbat kolektibok[1] (gizarte-mugimenduak, GGKEak, sareak eta sindikatuak) **proposamenak eta aldarrikapenak** adostu ditugu estrategikotzat jotzen ditugun lau ardatzen inguruan: ekonomia pertsonen zerbitzura, deshazkunde energetikoa, elikagai-subiranotasuna eta pertsonen zainketa, bizitzaren jasangarritasunaren euskarri gisa.

Manifestu moduan aurkezten ditugun proposamen eta aldarrikapen hauek erakunde publikoei zuzentzen dizkiegu, bizimodu jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta ekitatibo baterako beharrezko trantsizio politikoa gidatzen lagundu dezaten, pertsonen, herrien eta naturaren arteko harreman eta praktika politiko, ekonomiko, sozial eta kultural ekitatibo, solidario eta errespetuzkoak eraikitzearen alde apustu eginez.

Herritarrei dei egiten diegu, banaka edo kolektiboki, manifestu honi atxikitzeko.

[1] Bizilur, EHNE Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Emaús Gizarte Fundazioa, Setem Hego Haizea, Desazkundea, ESK sindikatua, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, REAS Euskadi, Euskadiko GGKEen koordinakundea, Saretuz, Zentzuz Kontsumitu, Alianza Política Sector de Mujeres, Centro de Mujeres Xochilt Acatl.

## NAHI DUGUNA

### PERTSONEN ZAINTZA BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN MUGARRI

1. **Enpleguari eskainitako denbora murriztea** eta lan ordainduak lan egiteko adina duten biztanleen artean banatzea.
2. **Ekomenpeko eta elkarmenpeko** izakiak garela **ikusaraztea.**
3. Bizitza sostengatzeko beharrak, besteak beste, pertsonen zaintza, komunitate-jangelak, hiriko baratzeak, garbitegiak, objektuak eta ezagutzak partekatzea, belaunaldiarteko topaketarako eta aisiarako guneak, kolektiboki, demokratikoki eta komunitate barruan **autokudeatu ahal izateko espazio publikoak eskaintzea**.
4. **Zaintza-sistemarako sarbidea bultzatzea**, instituzio publikoek (sektorearen profesionalizazioaren, laguntzen eta behar diren neurri guztien bitartez) bermatu beharreko **eskubide unibertsal gisa**.
5. Kalitate oneko eta doako **osasun publiko eta hezkuntza publiko unibertsala bermatzea**.
6. **Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegia zeharka integratzea eskola-curriculumean**: bizitzeko oinarrizko premiak, horiek asetzen dituzten zereginak, eta lan horiek egiteko modua.
7. %100ean ordaindutako **amatasun- eta aitatasun-baimen besterenezinak parekatzea**.
8. **Etxeko langileen eskubideak Langileen Estatutuko eskubideekin[1] parekatzea**.
9. **Gizartearen soldata-arraila murriztea,** 1 eta 3 bitarteko mailetara iritsi arte.

### ELIKAGAI-SUBIRANOTASUNA

1. **Ezinbesteko ondasun komun gisa, lurraren eta uraren zentraltasuna sustatzea**, eta transgenikorik gabeko kalitate oneko elikagaiak ematen dituzten nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren alde apustu egitea, lurralde-antolamenduko planen barruan.
2. Bizitzeko behar dugun **lurraldea irudikatzeko mekanismo parte-hartzaileak sartzea eta erabiltzea**: zer nolako lurzoruaren erabilera behar du biztanleriak, zaindu behar ditugun ondare naturalen eta biztanleen erabilera sozialen arteko oreka bilatuz.
3. **Tokiko nekazariak berriro kokatzea** biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren bermatzaile gisa, bai eta eraldaketarako agente gisa ere; azken finean, landako jakintza balioestea.
4. **Tokiko ekoizpen autonomoak bultzatzea**, nekazaritzako instalazioen iraunkortasuna berma dezaketen ekimen txikien bidez, kanpoko sargaiak murrizten lagunduz.
5. **Eredu agroekologikoetarako trantsizioa sustatzea**, bai sektore produktiboan, abeltzaintzan eta arrantzan, bai eraldaketaren sektorean.
6. **Eskala txikiko** eta artisau-transformazioko **ekoizpenekin bat datozen osasun- eta garbitasun-arauak bultzatzea**.
7. **Kontsumoa eraldaketa sozialerako eta boterea lortzeko tresna gisa** kokatzea, informazioa gerturatuz eta biztanleriak oro har tokiko kontsumoa bultzatzeak duen garrantzia ikusaraziz.
8. Hurbileko zirkuituen bidez, kalitate oneko elikagaiak ematen dituzten **ekoizpen agroekologiko eta jasangarriak laguntzen dituzten** eskola-jangeletarako, jangela sozialetarako eta udal-egoitzetarako **kontratazio publikoko eta lizitazio-ereduak garatzea**.

### DESAZKUNDE ENERGETIKOA: ENERGIA AURREZTEA ETA MODU JUSTU ETA DEMOKRATIKOAN BIRBANATZEA BAI EKOIZPENEAN BAI KONTSUMOAN

1. Legeria egoki baten bidez, **kargu politikoek enpresa energetikoetan lanpostuak betetzea saihestea**.
2. **Fracking-ari luzamendu bat ezartzea**; halaber, orain arte onartu diren prospekzio-baimenak baliogabetzea.
3. **Enpresa transnazionalek** gasaren, petrolioaren eta uranioaren esplotazio zabarragatik kalteak eragin dizkieten herrialde eta komunitateei (besteak beste, Mexiko, Guatemala, Ekuador, Bolivia, Peru, Indonesia, Nigeria, eta abar) **jasandako kalteak onartzeko eta ordaintzeko exijitzea**.
4. **Energia-eraginkortasuna eta energia-aurrezkia bultzatzea** sektore guztietan.
5. **Energia oinarrizko eskubide gisa aintzat hartzea**, eta legeak ezartzea pertsona guztiek bizitza duina izatea bermatzen duen gutxieneko kantitate baterako sarbide unibertsala lortzeko.

### EKONOMIA PERTSONEN, GUZTIEN ONGIZATEAREN ETA BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN ZERBITZURA

1. **Ekonomia pertsonen, guztien ongizatearen eta ingurumenaren jasangarritasunaren zerbitzura dagoen baliabidea izatea,** irabazi-asmoan soilik oinarritzen ez den ekonomia desinteresatu baten alde apustu eginez.
2. Besteak beste, lan-eskubideen, ingurumenaren babesaren eta herrien subiranotasunaren murrizketaren kontura kapital transnazionalaren interesak laguntzeko helburua duten **merkataritza libreko itunak bezalako tresnak saihestea**.
3. **Lan guztiak banatzeko politikak prestatzea**, enplegu ordainduari eskainitako denbora murriztuta.
4. **Pertsona guztiei bizitza duina izateko eskubidea bermatzea**. Hori lortzeko funtsezkoa da baldintzarik gabeko oinarrizko errenta unibertsala edo berdinen oinarrizko errenta ezartzea.
5. **Errenta eta ondareak banatzeko bidezko eredu bat sustatzea**, aberastasuna banatzea ahalbidetzen duen zerga-sistema progresibo baten bitartez.
6. **Ikuspegi feminista eta bizitzaren jasangarritasunaren paradigma kudeaketa instituzionalaren eremuan zeharkakotzea.** Hortaz, zentzu horretako politika publikoak elkarrekin eraikitzeko eta gauzatzeko prozesuetan aurrera egitea.
7. **Sektore antisozial eta kutsatzaile handiak birmoldatzeko eta birlokalizatzeko prozesu kolektibo eta demokratiko bat hertsatzea**, enplegu berdeak (banka, energia, ehuna, elikadura, automobilgintza, industria militarra, eta abar) eskaintzen dituen aukeretan ardaztuz.
8. **Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzea**, pertsona guztien inklusioa eta justizia soziala bultzatzen dituen paradigma ekonomiko batera aldatzeko beharraren gainean hainbat gizarte-eragile kontzientziatzeko eta biztanleak sentsibilizatzeko kanpainen bidez. Kontsumo arduratsua, finantza etiko eta solidarioak, edota kontsumo-kooperatibak (energia, elikadura, osasuna, zerbitzuak, eta abar) sustatzea.
9. **Lurraldean kokatzen diren ekonomia solidarioko proiektu eta ekintzaileetzen mapaketak egitea**; halaber, instituzioetako langile tekniko eta politikoak ekonomia solidarioaren eta politika publikoak bultzatzeko giden prestakuntzaren inguruan sentsibilizatzea eta prestatzea.

**ATXIKITU HEMEN:** www.tipitapabagoaz.info

Koordinatzailea: MUGARIK GABE www.mugarikgabe.org

Finantziazioa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA / AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO; Bizkaia foru aldundia / diputación foral; Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua / Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes